


Fundación **BBVA**




# Lucille Chung

pianoa



Fundación BBVA  
San Nikolas Eraikina  
Bilbao

2017  
**ABE**  
**20**



## BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak — ezagutza zientifikoa eta kultur sormena bultzatzea bereizgarri duenak — Musika-programa bat eratu du arte-adierazpen horri onura ateratzeko eta hartaz gozatze-ko gizarateak dituen era ezberdinetan barrena egindako ibilbide oso bat izango balitz bezala. Horrela, obra berriak sortzea sustatzen du konposizio-enkarguak eginez, eta haiek zaindu eta zabaltzeari bide ematen dio lehen mailako diskoetxe eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musikaz gozatzea sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bitartez, zeinei esker herritarrek doan entzuten baitituzte erreperitorio garai-kidean erreferentzia diren ensemble eta solistak. Konferentzia-zikloak antolatzen eta argitalpenak editatzen ditu egile jakin batzuen lana hobeto ulertzeko edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketari ekiteko. Musikari gazteei prestatzeko aukera ematen die

honako hauekin garatutako programen bitartez: Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid, Joven Orquesta Nacional de España eta Escuela Superior de Música Reina Sofía. Eta ikerketa- eta sorkuntza-proiektu oso berritzaileak gauzatzen ditu Musika eta Operako Leonardo Beken bitartez.

Orkestren kudeaketari buruzko sinposio espezializatuak antolatzen ditu, elkarlanean jarduten du herrialdeko hainbat musika-talde eta antzokirekin (Teatro Real, Teatro de la Maestranza, Gran Teatro del Liceu, Orquesta Sinfónica de Madrid eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, besteak beste), eta bikaintasuna aitortzen du honako sari hauen bidez: Premio de Composición Asociación Española de Orquestas Sinfónicas-Fundación BBVA eta BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean.

## Fundación Joaquín Achúcarro

Joaquín Achúcarro Maisua piano-jotzaile espainiarra da, nazioartean ospe eta aitormena duena 1959an Liverpooleko Nazioarteko Lehiaketan nagusitu zenetik. Estatu Batuetako, Argentinako, Alemaniako, Austriako, Erresuma Batuko, Japoniako edo Australiako areto ospetsuetan egin ditu emanaldiak eta berrehun orkestra eta hirurehun zuzendarirekin baino gehiagorekin aritu da bakarlari-lanetan.

Jaso dituen sari ugarien artean aipagarriak dira Espainian lortu dituen aitortpen gorenak: Gran Cruz de la Orden del Mérito Civil (2003), Gran Cruz de la Orden del Mérito Civil (1996), Juan Carlos I.a Erregeak eman ziona, eta Premio Nacional de Música (1992). Unescok 2000. urteko Bakearen aldeko Artista izendatu zuen. 1989az geroztik, Achúcarro Maisua Joel Estes Tate katedraduna da Texasako Dallaseko Southern Methodist Universityn.

Fundación Joaquín Achúcarro, Dallasen Espainiaren ohorezko kontsula zen Janet Kafkak sortu zuen. Lucille Chung eta

Alessio Bax piano-jotzaileak Achúcarro Maisuaren ikasleak izan ziren eta Fundazioaren arte-zuzendariak dira egun. 2007ko udaberrian lehen kontzertua egin zuenetik, Fundazioak piano-jotzaile gazteak aurkeztu ditu Washington D.C.n, Phillips Bildumarekin lankidetzan, eta Galeria Nazionalean; Chicagon, Cervantes Institutuan; Miamin, Espainiar Kultura Zentroarekin lankidetzan; Bostongo Unibertsitatean; baita Dallas, Houston eta Milwaukeeen ere, Estatu Batuetako beste hiri batzuen artean. Bidenabar, Fundazioak Guatemalan eta Mexikon ere eskaini ditu kontzertuak.

2012az geroztik, BBVA Fundazioak hitzarmen bat du Fundación Joaquín Achúcarroarekin, interprete gazteen urteroko bira bat antolatzeko; bertan, prestakuntza-programan gailendu den ikasle batek BBVA Fundazioaren Bilboko eta Madrilgo egoitzetan kontzertu bana eskaini ahal izaten ditu. Gaur gaueko kontzertuak maisuaren 85. urtebetetzearen ohorezko ekitaldien hastapena izan nahi du.

## Interpretea

**Lucille Chung**

pianoa

## Egitaraua

**Joseph Haydn** (1732-1809)

*Sonata para piano en mi bemol mayor, Hob. XVI:49*

- I. Allegro
- II. Adagio e cantabile
- III. Finale: Tempo di Menuet

**Sergei Prokofiev** (1891-1953)

*Sonata para piano n.º 2 en re menor, op. 14*

- I. Allegro, ma non troppo
- II. Scherzo: Allegro marcato
- III. Andante
- IV. Vivace — Moderato — Vivace

**Franz Liszt** (1811-1886)

*Sonata para piano en si menor, S. 178*

# Programarako oharrak

## Joseph Haydn

*Sonata para piano en mi bemol mayor, Hob. XVI:49*

Haydnen sonatei buruz egin zuten azterlanean, Harry Halbreich eta Marc Vignalek lau multzotan sailkatu zituzten haiek: lehenengoan, gaztaroko sonatak egongo lirateke, Scarlatti handiaren oihartzunak dituztenak estiloaren aldetik, eta *divertimento* zantzua dutenak formari dagokionez; bigarren multzoak, alemaniar ereduena — Carl Philipp Emanuel Bach — eta *Sturm und Drangak* berezkoa duen adierazkortasunaren alderako joera luke; hirugarrenak, heldutasun betekoak jada, adierazpide kopetilun hori samurtu egingo luke, beharbada Mozarten nortasunaren eraginpean; eta azkenik, 1789 eta 1794 bitartean sortutako bost sonatek, aurreko berrogeita hamazazpi obretan erakutsia zuen maisutasun ikusgarria berretsi ez ezik sortzaile handienek soilik berezkoa duten sakontasuna, nortasuna, transzendentzia instrumental zein estetikoa azaltzen dute.

*Sonata en mi bemol mayor* izeneko obra hau 1789-1790ekoa da; azken hamabi sinfoniak (93.a eta 104.aren artekoak), *Sinfonías de Londres* liluragarriak, baina pixka bat lehentxoagokoa da beraz, haiek 1791n hasi baitziren estreinatzen. Hiru mugimendutan dago antolatuta. Lehendabizikoak, *Allegroak*, material oso aberatsa eta arintasunez

jantzia proposatzen du, xamurdura mozartiarraz beterikoa. Erdiko aldi geldoa, zalantzarik gabe, obraren grabitate-erdigunea da: teklatuarentzako idazketarik trebatuena lotzen da inspirazio-iturri goitiarrenarekin eta benetan «erromantikoak» diren adierazpenekin. Haydn bera jabetu zen beste inor baino lehenago, jakina, noraino ari zen musika jasoa eskaintzen *Adagio e cantabile* horrekin, eta horregatik, partitura bidualterakoan, bere lagun Marianne von Genzingeri igorri zion gutunean, gomendatzen zion arreta berezia ipin zezala mugimendu horretan, esanez: «Badu esanahi sakon bat, abagunea dugunean azalduko dizudana... Zail samarra da, baina sentimenduz beteta dago». Obra *Tempo di Menuet* batekin amaitzen da, adeitasun-aldiari egiten zaion keinu deigarri bat, baina itxuraz besterik ez, oso mugimendu originala baita orrialde osoa, eta bertan elkarlotzen dira minuetaren, rondoaren eta bariazioen elementuak, berrikuntza-ahalmenez gainezka dagoen ildo batean.

Haydn bere ibilbidea amaitzen ari zen, eta Beethoven berea hasten...

## Sergei Prokofiev

*Sonata para piano nº 2 en re menor, op. 14*

Piano-jotzaile iaioa zen Prokofievek berak estreinatu zuen *Segunda sonata* hori Moskun, 1914ko otsailaren 5ean.

Obra 1912an idatzi zuen eta estreinaldia baino zertxobait lehenago argitaratu, konpositoreak lagun eta San Petersburgon ikaskide izan zuen eta 1913an bere buruaz beste egin zuen Maximilian Schmithofi eskainita. Prokofiev oso gaztea zen orduan, baina obra honetan jauzi kualitatiboa egiten du jada bere lehen lanaren, *Opus 1*aren aldean; hura, funtsean, nerabe baten lana izan baitzen, non ez baitzuen ezkutatatu ahal eta nahi izan piano erromantiko (Schumann) eta posterromantiko (Rachmaninov, Scriabin) handiaren eragina. *Sonata n.º 2, op. 14*ean aurkituko dugu jada berezko nortasuna duen musikagile bat, tradizio erromantikoetatik aldendu dena eta hizkera modernista beretu duena, erritmo zorabigarriekin eta harmonia ausartekin, *cantabile*ildoekin bateragarriak zirenak eta bere katalogo zabalaren zati handi batean agertuko zen lirikotasun oso berezia azaltzen zutenak.

Lau mugimendutan antolatzen da obra; haietako lehenak, *Allegro, ma non troppo*, lau gai, zehatz-zehatzak, proposatzen ditu, bakoitzari garapen labur bat eman eta gero libreki berregiteko, aldaera batzuk erantsiz, amaierako atalean. Ondoren, *Allegro marcato* labur bat dator, *scherzo* funtzioa duena, hiruko eskema tolesgabe eta simetriko (A-B-A) baten arabera. Kontrastean, tempo mantsoa —*Andante* bat— oso landua da eta

adierazkortasun sakona proposatzen du, errusiar musika nazionalistaren erresonantziaren batekin, darabilen material tematiko aberatsaren baitan. *Vivace* ere hiru ataletan antolatuta dago eta Prokofiev «motordunaren» mugimendu eredugarrietakoa da, bertuosismoz jantzitako orrialdea, hegalaria bere atal nagusian eta askatasunez sortua: *toccata* moduko bat da, aire biziko jardun bat proposatzen duena, abagune *moderato* batean mantsotzen dena, non Prokofievek gogora ekartzen baitu lehen aldiko gai lirikoagoa eta, azkenik, atal nagusiko kemen-aldira itzultzen da amaiera erabakitsua eta distiratsua emateko.

## Franz Liszt

*Sonata para piano en si menor, S. 178*

*Años de peregrinaje* lanaren lehen bolumena osatuko zuten piezak, aspaldi sortuak zituenak, berraztertzen ari zen garaian sortu zen Lisztek bere katalogo oparoan tartekatuko zuen sonata bakarra. 1852an hasi eta hurrengo urteko otsailaren 2an amaitu zuen, eta *Sonata en si menor* lan erraldoi hori Robert Schumann eskaini zion Lisztek, hark lehendanik eskainia baitzion berari *Fantasia en do mayor, op. 17*. Hori bai trukea! Richard Wagnerrek, hizpide dugun obra 1855eko apirilean entzun zuenean, Liszti idatzi zion, esanaz haren musika iruditzen zitzaiola «edertasun paregabekoa, bikaina, xarmangarria,

sakona eta noblea. Zeu bezain sublimea egiten da. Benetan hunkituta nago». Iritzi hori kontrako joerako batekin aurkatzeko, gogora dezagun Eduard Hanslick kritikari ospetsuarena, ez baitirudi hura egunik gozoenean, ez eta distiratsue- nean, zegoenik hau idatzi zuenean: «Hitzez azaldu ezinezkoa da musikamunstro horren izaera. Ez dut inoiz entzun hain elementu zentzugabeen, eldarnio basatien elkarlotze ausart edo burugabeagorik, ez eta musikarekiko eraso basatiagorik». Bego horretan.

Beethovenen azkenaldiko piano txundigarritik abiatuz, Franz Lisztek bere *Sonata en si menor* lanean gauzatzen du sonata formaren moldakuntza pertsonal miresgarri bat, haren elementu guztiak hausnartuz haiek berregin eta sonataren berezko arkitektura-eredu bat sortzeko ildo bakar batean, zeinaren baitan forma ziklikoaren oinarriak finkatzen baitira (gero Erromantizismo berantiarrean hain emankorrak gertatuko direnak), eta musikaren ikuspegi «dramatiko» baten hautua egiten du, gaiak erabiliz pertsonaiak bailiran, garapenek «ekintzaren» baitan bilakatzen joango balira bezala eta «sentimenduak» diruditenak adieraziz.

Liluragarria bezain konplexua da obra- ren azterketa formala. Ziklikotasunak, hau da, aurreko ataletan entzun di- ren gaiak behin eta berriz berrager- tzeak, batasun bat ematen dio, soinu-

adierazpenaren trinkotasun bat, eta hori da bere bikaintasun handienetako bat. Pierre Boulezek idatzi zuen sonata honi buruz «aniztasuna eta jarraipe- na elkarlotzen dira sintesi liluragarri batean». Sei gai edo motibo ezber- din, oso berezituak, zenbatu ohi dira, hainbat konpasetan azalduz, gutxi gora behera obraren lehen herenean esan genezake. Lehen hiruak berehala agertzen dira eta elkarrengandik oso hurbil. Lehena, nahiko zekena, sonata abiarazten duena da, pianoaren erre- gistro grabean, eta beheranzko eska- lako diseinua du bereizgarri. *Lento* bat da, segituan *Allegro energico* batera bi- deratzen dena, eta han dator bigarren motiboa: laburra, ertz askokoa, laka- tza, izugarritzko kemena duena, eta haren atzetik dator, etenik gabe eta teklatuaren erregistro grabera itzuliz, hirugarren motiboa, arras definitua, sarkastiko imintziotsua, fusa-hirukotxo batez eta errepikatzen den nota bat mailukatuz hasten dena.

Hain labur eta motz azaldu dugun ma- terial aberats horrekin ekiten zaio le- hen garapenari; prozesua, obra osoan bezala, oso askea da ikuspegiari da- gokionez eta bariazio-prozeduraren elementuak aintzat hartzen ditu beti. Amaierako klimaxa atalarentzako koda indartsua da alde batetik eta ondo- rengoaren sarrera bestetik: *Grandioso* pasarte bat, abesbatza-himnoa kasik, eta horrek osatzen du laugarren gai



laburra. Gaien materiala ugaritu ahal, garapen jarraikorrek loditu egiten du bere dentsitatea. Egituraz kome-nigarria baita, hain zuzen ere, ondoren datorrenerako: etenaldi liriko bat, ameslaria, *Cantando espressivo* bat dakarrena eta pixkana-pixkana Chopinen nokturnoen antza duen giro batean murgiltzen dena: hori da bosgarren gaia, segituan aurreko gaiekin elkarrizketan hasiko dena, haiek behar beste eraldatuta, bai soinu eta bai adierazpenez, atal baretu honetan egokitu daitezten. Baina berehala itzultzen da kemena, are borrokaren zalaparta, gaiaren edo garapenaren beste gatazka-pasarte batean, eta horretan laugarren motiboa (*Grandioso*) oldartu egiten da harrotasunez.

Beste etenaldi poetiko bat iristen da orduan: *Andante sostenuto* bat, ia adierazpen mistikoa duena (seigarren gaia) eta hari atxikitzen zaio *Quasi adagio* bat. Sakonki eraldatuta dagoen *Grandioso* bat barnebiltzen duen motiboen beste berregituraketa batek eramaten gaitu gailur indartsu batera —konposizioaren grabitate-erdigunera— eta handik behera, aurreikusten den, batez ere lehen motiboa berrezartzen denean, amaiera dirudienaren bidean; baina behin betiko amaiera ez dena, atal horren amaiera besterik ez dena, hain zuzen ere bat batean abiatzen baita orain fuga-pasarte miresgarri bat hasierako motiboetako birekin, sub-

jektu eta kontrasubjektuarena egiten. Aurreko *Andante sostenuto* - *Quasi adagio* pasarteak ohiko sonatako aldi mantsoarena egin bazezakeen, fuga hau *scherzoa* izango litzateke. Haren kontrapuntuko hazkundea, apartekoa da adierazpenez nahiz soinu, Liszti egotzi ohi zaion «deabruzko bertuosismoaren» ezaugarriak lortu ere lortzen baititu. Goreneraino iritsi ondoren, berriro ere motiboen berragerpen eta aurkatze berri eta azkena dator, behin betiko amaierara daramana: *Lento assai*, beheranzko eskala errepikatuz (lehen motibokoa) instrumentuaren barrenalde ilunetan, jarraian estasiszko akorde estatikoetaraino goratzeko akutu-aldean, azkenean pianoaren si graberaino jausteko.

Liszten *Sonata en si menor* jeinu baten obra da, izugarritzkoa. Pianismo erromantikoaren, musika-sorkuntza ulertzeko era baten paradigma da, esateko asko duena harmoniaren, melodiaren eta formaren ikuspuntu-tik: bai mikroformari dagokionean (perpausen antolamenduan) eta bai makroformaren alorrean (egituraketa orokorrean).

José Luis García del Busto

## Lucille Chung

Lucille Chung piano-jotzaile kanadarra Montrealen jaio zen eta hamar urterekin egin zuen debuta Montrealgo Orquesta Sinfónicarekin eta Charles Dutoitekin; hark berak gonbidatu zuen geroago orkestrak 1989an Asian egin zuen itzulian bakarlaria izan zedin. Harez geroztik, kontzertu-errepertorio zabala landu du 65 orkestra baino gehiagorekin; horien artean, Philadelphia Orchestra, Moscow Virtuosi, BBC National Orchestra of Wales, Flandriako Irratiko Orkestra, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Staatskapelle Weimar, Lorenako Philharmonie, Orchestra Sinfonica Siciliana, Belgradeko Orkestra Filarmonikoa, Seulgo KBS Orkestra Sinfonikoa eta Orkestra Filarmonikoa, New Jersey Symphony Orchestra, Dallas Symphony Orchestra, Mexikoko Orquesta Filarmónica de la



UNAM, Israelgo Orquesta de Cámara eta Kanadako orkestra nagusi guztiak: Montreal, Toronto, Vancouver, Ottawa, Calgary eta Winnipegekoak, besteak beste. Krzysztof Penderecki, Vladimir Spivakov, Vasily Petrenko, Yannick Nézet-Séguin, Peter Oundjian, Gerd Albrecht eta Charles Dutoit zuzendariekin aritu da jotzen.

35etik gora herrialdetan eta areto ospetsuetan egin ditu emanaldiak: Londresko Wigmore Hall, New Yorkeko Carnegie Hall eta Lincoln Center, Washington D. C.ko John F. Kennedy Center for the Performing Arts eta Phillips Collection, Chicagoko Dame Myra Hess Memorial Concerts, Amsterdameko Concertgebouw, Madrildgo Auditorio Nacional de Música, Budapesteko Gran Sala de la Academia de Música Franz Liszt eta Bruse-

lako Palais des Beaux Arts. Hainbat jaialditan ere aritu da, adibidez, Suitzako Verbier Jaialdia, Dresdeko MDR Musiksommer, Internationale Lübecker Kammermusikfest, Santanderko Festival Internacional, Tel Aviveko Festival Internacional de Música Felicja Blumental, Athertoneko Music@Menlo (Kalifornia), Montreal International Festival, Ottawa Chamber Music Festival, New Yorkeko Bard Music Festival eta International Keyboard Institute & Festival, Txinako Festival de Changchún eta Guatemalako Festival Internacional Bravissimo.

1989an nazioarteko aintzatespena lortu zuen Stravinski Nazioarteko Piano Lehiaketan Lehen Saria eskuratuz. 1992n Bigarren Saria erdietsi zuen Montrealgo Nazioarteko Musika Lehiaketan, eta argitaratu gabeko obra baten interpretaziorik Hoberenaren Saria ere eskuratu zuen. 1993an Kanadako Gobernadore Nagusiaren Berealdiko Lorpenaren Saria jaso zuen, eta 1994an Bigarren Saria lortu zuen Weimar-Bayreutheko Franz Liszt Nazioarteko Lehiaketan. 1999an Virginia Parker Sari ospetsua eman zion Kanadako Arteen Batzordeak.

20 urte bete baino lehen graduatu zen Curtis Institute of Musicen eta New Yorkeko Juilliard Schoolen. Bere prestakuntza osatzeko, Londresera jo zuen Maria Curcio, Artur Schnabelen ikaslearengana, eta

Salzburgoko Mozarteumera, Karl-Heinz Kämmerlingengana, eta Weimarko Hochschule für Musik Franz Liszteko Konzertexamen Diplom agiria jaso zuen, Lazar Bermanekin aritu ondoren. Italiako Imolako Accademia Pianistica Internazionalen ere graduatu zen, ohorezko master izendapena eskuratuz, eta Joaquín Achúcarroekin aritu zen Dallaseko Southern Methodist Universityn, eta gaur egun Johnson-Prothro Artista Erresidentziaduna da bertan. Halaber Sienako Accademia Chigianaren Ohorezko Diploma ospetsua ere jaso du.

*The Sunday Times* egunkariak esan zuen berari buruz, Dynamic etxearentzat György Ligetiren piano-lanen grabaketa integrala egin zuenean, «artista iaioa da, egiten duen musika-hautaketa ausartagatik miresgarria». Lehen bolumena 2001ean argitaratu zen kritikaren onarpen beroarekin eta *Classica-Répertoire* aldizkari frantsesaren R10, *BBC Music Magazineren* Bost Izar eta *Fono Forum* alemaniarraren Bost Izar aintzatespenak jaso zituen. Integral horren azken bolumena, bi pianorentzako obrak jasotzen dituen, Alessio Bax bere senarrarekin batera grabatu zuen, eta *Classica-Répertoire*ren R10 bat jaso zuen ere. Scriabinen obrekin egin zuen disko monografikoak Instrumentu Disko Hoberenaren Saria jaso zuen Herbehere-tako Prelude Classical Music Awardsen

2003ko edizioan, eta baita *Classica-Répertoire*ren R10 estimatuetako beste bat ere.

Mendelssohnen bi piano-kontzertu grabatu ditu Kanada Irratiaren Richelieu diskoetxearentzat, eta herrialde hartako Opus Sarietarako hautagaietako izan zen. 2005eko abuztuan Alessio Baxekin batera Saint-Saënsen *El carnaval de los animales* grabatu zuen Fort Worth Symphony Orkestrarekin, Miguel Harth-Bedoyaren zuzendaritzapean. 2007an, Fazioli Concert Hall Seriesentzat album baten protagonista bakarlaria izan zen eta, oraintsu, kontratu eksklusiboa hitzartu du Disques XXI / Universal etxearekin; bi disko argitaratu ditu jada harekin: *Camille Saint-Saëns Piano Transcriptions* eta *Mozart & Me*. Biek hala biek kritikaren laudorioak jaso dituzte eta mundu osoan zehar zabaldu dira. Alessio Baxekin bikotea osatuz, Stranvinskyren *Petrouchka* balletaren lau eskurentzako jatorrizko bertsioarekin diskoa argitaratu zuen 2013an, Brahms eta Piazzolaren musikarekin batera, Signum Records etxeak argitaratuta. 2015ean Poulenci buruzko monografikoa argitaratu zuen Signum Recordsekin, eta *MusicWeb Internationale*lek Hileko Grabazioaren izendapena eman zion. 2018an bakarkako lanean album bat argitaratuko du Liszten obrekin Signum Records diskoetxearekin.

Frantsesez, ingelesez, koreeraz, italiaraz, alemanez eta errusieraz eroso mintzaten da. Chung eta bere senarra, Alessio Bax, New Yorken bizi dira beren alaba Milarekin, eta Dallaseko Joaquín Achúcarro Fundazioaren arte-zuzendarikideak dira.

# Hurrengo kontzertuak

---

## Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2018 | 01 | 9

### **Cuarteto Tana**

Franck Bedrossian, Yann Robin, Sofía Martínez, Voro García eta György Ligeti-ren lanak

2018 | 01 | 23

### **Ensemble Court-Circuit**

#### **Jean Deroyer (zuzendaria)**

Philippe Hurel, Bertrand Dubedout, Alberto Posadas eta Javier Quislant-en lanak

2180 | 02 | 20

### **Trío Salzedo**

Peter Eötvös, Kaija Saariaho, Ivan Fedele, Zuriñe F. Gerenabarrena, Bruno Mantovani eta Joan Magrané-ren lanak

2018 | 03 | 13

### **Ensemble de Cadaqués**

#### **Josep Vicent (zuzendaria)**

John Adams, Igor Stravinsky, Joan Albert Amargós eta Mikel Chamizo\*-ren lanak

2018 | 04 | 10

### **Trío Zukan**

Félix Ibarondo, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez eta Magnus Lindberg-en lanak

2018 | 05 | 15

### **Ensemble PHACE**

#### **Nacho de Paz (zuzendaria)**

*Paris qui dort*, René Clair-en filma. Yan Maresz-en musika

\* BBVA Fundazioaren enkargua

